

3/2019 INSTRUKZIOA, URRIAREN 21EKOA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, KONTZILIAZIO-BAIMENAK PAREKATZEARI BURUZKOA.

I.- HITZAURREA

2019ko irailaren 17an, Gobernu Kontseiluaren Erabaki baten bidez, onartu zen parekatzea: ama biologikoaren jaiotzagatiko baimena; adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harreragatiko baimena; eta ama biologikoa ez den gurasoaren seme-alabaren jaiotza, adopzio, adopzio aurreko zaintza, edo harreragatiko baimena. Erabaki horren laugarren puntuan xedatzen da Funtzio Publikoko Sailburuordetzak jarraibideak emango dituela, hemen adierazitako baimenak eskatzeko eta gozatzeko prozedurari buruz.

Testuinguru honetan, kontuan izan behar da 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena, indarrean sartzeak aldatu egin dituela orain arte ezagutzen genituen erditze, aitatasun, adopzio, adopzio aurreko zaintza, harrera eta edoskitzegatiko baimenak.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginari (EPOETB) urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak emandako erredakzio berriak eta goian aipatutako parekatzeak azalpen batzuk ematera behartzen dute, indarrean dauden lan-baldintzen akordioetan eta hitzarmen kolektiboetan ukitzen diren alderdiak argitzeko.

Nobedade gisa, jaiotza eta adopzioagatiko baimenei, ama biologikoa ez den gurasoaren baimenei eta edoskitzeagatiko baimenari dagokienez, administrazio publikoetako lan-kontratuko langileei Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ezarritakoa aplikatuko zaie, eta ez, orain arte aplikatzen zitzaizen bezala, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak xedatzen duena kasu horietan legozkiekeen lan-kontratuaren etenaldiei buruz. Horrela, bada, instrukzio honetan egiten diren erreferentzia guztiak, instrukzio honen aplikazio-eremuko lan-kontratuko langileei, funtzionarioei eta estatutupeko langileei buruzkoak dira.

II.- XEDEA

Instrukzio honen xedea da EPOETBren 49 a), b) eta c) artikuluan jasotako baimenak goian esandako 6/2019 ELDak emandako erredakzio berrian parekatzeak ukitzen dituen alderdiak arautzea:

- a) Ama biologikoaren jaiotzagatiko baimena. (lehen, erditzeagatiko baimena)
- b) Adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harrera aldi baterako zein iraunkorragatiko baimena
- c) Ama biologikoa ez den beste gurasoaren seme-alabaren jaiotza, adopzio aurreko zaintza, harrera edo adopzioagatiko baimena. (lehen, aitatasun-baimena)

Halaber, EPOETBren 48 f) artikuluan jasotzen den edoskitze-baimenari buruzko alderdi zehatz batzuk ere arautzen dira, artikulua horren idazkera berria kontuan hartuta.

III.- APLIKAZIO-EREMUA

Instrukzio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrean ordezkaturik dauden langileei aplikatuko zaie.

IV.- BAIMENEN IRAUPENA PAREKATZEA: AMA BIOLOGIKOAREN JAIOTZAGATIKO BAIMENA; ADOPZIO, ADOPZIO AURREKO ZAINZTA, EDO HARRERA ALDI BATERAKO ZEIN IRAUNKORRAGATIKO BAIMENA; ETA AMA BIOLOGIOA EZ DEN GURASOAREN SEME-ALABAREN JAIOTZA, ADOPZIO AURREKO ZAINZTA, HARRERA EDO ADOPZIOAGATIKO BAIMENA.

18 asteko baimena hartzeko eskubidea izango dute oro har eta oinarrizko araudiak ezartzen duenari kalterik egin gabe, adingabearen gurasoek, adoptatzaileek edo zaintzaileek, diren sexukoak direla, jaiotza, adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harreragatik, enplegu publikoaren oinarrizko araudian erregulatutako moduan. 18 aste horiek luzatu egingo dira, oinarrizko araudiaren arabera legokiokeen luzapenez gain, kasu hauetan:

- bi aste gehiago haur bakoitzeko, bi haur edo gehiago jaio, adoptatu edo harreran hartzen direnean.
- bi aste adingabeak desgaitasunen bat izanez gero.

Kontuan izanda oinarrizko araudiak aurreikusten duela ama biologikoaren jaiotzagatiko baimenarekin parekatzea 2021. urtea amaitu aurretik, ondoko taulan ematen dira nahitaez hartu beharreko asteak, borondatezkoak eta goian aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakiak (GKE) onartutako hobekuntzakoak.

	Ama biologikoa	Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa		
		2019/09/01etik aurrera	2020	2021
Oinarrizko araudiko nahitaezko zatia	6 aste	2 aste	4 aste	6 aste
Oinarrizko araudiko borondatezko zatia	10 aste	6 aste	8 aste	10 aste
GKEak hobe tutako zatia	2 aste*	10 aste	6 aste	2 aste

*Instrukzio honetan aipatzen den GKEaren aurretik egindako hobekuntza

V.- BAIMEN PAREKATUAK HARTZEA

Goian aipatutako baimenak besterenezinak dira, eta honela hartuko dira:

- Nahitaezko zatia

Ama biologikoa	Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa		
	2019/09/01etik aurrera	2020	2021
6 aste	2 aste	4 aste	6 aste

Berehala hartuko da eta etenik gabe gozatuko da haurra jaiotzen den egunetik aurrera edo adopzioa, adopzio aurreko zaintza edo harrera eratzeko erabaki judiziala edo administratiboa ematen denetik aurrera.

- Oinarrizko araudiko borondatezko zatia

Ama biologikoa	Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa		
	2019/09/01etik aurrera	2020	2021
10 aste	6 aste	8 aste	10 aste

Aste horiek honela hartu ahal izango dira:

- o Etenik gabe baimenaldiko aste guztiak agortu arte. Nahitaezkoa izango da kasu hauetan:
 - bi gurasoetako batek lanik egiten ez duenean.
 - adopzio, zaintza edo harreretan, haurra 12 hilabetetik gorakoa denean.
- o Baimena zatika hartzen bada, asteka hartuko dira baimen-zatiak, haurrak 12 hilabete bete arteko mugarekin, eta honela hasita:
 - Ama biologikoa denean: nahi duenean, sei asteko nahitaezko atsedenaldia amaitutakoan.
 - Beste gurasoa denean:
 - ama biologikoaren nahitaezko atsedenaldia amaitu eta gero, edo
 - ama biologikoaren edo beste adoptatzaile edo zaintzailearen baimena amaitu eta gero (hobekuntzan luzatutako asteak barne)
 - jaiotza-baimenaren ondoren ama biologikoak edo beste adoptatzaile, zaintzaile edo harrerako gurasoak eskatzen badu haurraren edoskitze-denbora lanaldi osoetan metatzea, denbora hori igarotakoan hasiko da gainerako baimen-asteen kontaketa.

Baimena zatika hartzen denean, aste osoetan banatuta hartuko da, eta baimen-zati bakoitza hartzeko aurreabisu erreboka ezina egin beharko da, gutxienez 15 egun baliodun lehenago. Sektore bakoitzean posta elektronikoko helbide bat edo lehendik ezarrita dagoen beste bide bat erabiliko da aurreabisua komunikatzeko instrukzio honen I. eranskinean ematen den testuaren arabera.

- **Gobernu Kontseiluaren Erabakiak hobetutako zatia**

Ama biologikoa	Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa		
	2019/09/01etik aurrera	2020	2021
2 aste*	10 aste	6 aste	2 aste

*Instrukzio honetan aipatzen den GKEaren aurretik egindako hobekuntza

GKEak emandako hobekuntza-zatia etenik gabe gozatu beharko da, eta berehala hartu beharko da oinarrizko araudiak emandako borondatezko zatia, duen iraupena duela, amaitzen denean.

Hobekuntza hori etenik gabe gozatu beharretik salbuetsita geratuko dira, izendapenaren edo kontratuaren iraupena dela-eta, etenik gabe hartu ezin dutenak; kasu horretan, hurrengo izendapenean edo kontratuan berehala jarraituko dute baimenarekin, harik eta agortu arte, betiere haurrak hamabi hilabete bete aurretik.

- **Gai orokorrak**

- o Aurrez abisatutako baimena hartu aurretik lan-istripuren bat gertatuz gero, baimen hori gero hartzeko utzi ahal izango da, betiere haurrak hamabi hilabete bete aurretik.
- o Egitate sortzailearen data izango da beti baimen-asteak erabakitzeko erreferentzia; hortaz, lanpostuan hasten, lanpostura berriz sartzen edo itzultzen bada baimena osorik agortu aurretik, jatorriko eremuko lan-baldintzak mantenduko dira, instrukzio honetan ezarritakoaren arabera legokiokeen aste-kopuruaren mugarekin.
- o Ama biologikoa hiltzen bada, beste gurasoak baliatu ahal izango du oinarrizko araudiaren arabera hari zegokion baimenaldi osoa edo baimenalditik geratzen den zatia.

Era berean, oinarrizko araudian ezarritako borondatezko zatiko asteak zatika hartzen direnean, ordainketa ez da egingo aste guztiak agortu arte, Entitate Kudeatzaileak behar diren garapen informatikoak egiten ez dituen bitartean haurra jaiotzeagatik eta adingabea zaintzeagatik ematen diren prestazioak kudeatu, izapidetu eta ordaintzeko aplikazioetan.

VI.- BAIMEN PAREKATUAK DENBORA PARTZIALEAN HARTZEA

IV. puntuari aipatutako baimenak denbora partzian ere hartu ahal izango dira, zerbitzuaren premiei horretarako aukera ematen dutenean; horregatik, kasu bakoitzean banaka erabaki beharko da. Baimena denbora partzian hartzea ukatzeko, dagokion organoak txostena egin beharko du, lan-baldintzak arautzeko akordioetan edo hitzarmenetan ezarritakoa betez. Edonola ere, baimena denbora partzian hartzeko aukera lan-baldintzak arautzen dituzten akordio eta hitzarmenetan ezarritakora mugatuko da; ezingo da lanaldia aldatu baimena gozaten hasi eta gero.

VII.- 12 HILABETETIK BEHERAKO HAURAREN EDOSKITZE-BAIMENA

Baimen hau enplegatu publikoen eskubide indibiduala da, ezin zaio besterendu beste guraso, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerako gurasoari, eta haurrak urtebete egin aurretik hartu behar da inola ere.

Etenik gabe hartutako baimenaldi osoa amaitutakoan, edo nahitaezko baimenaldia amaitutakoan zatika hartzea erabaki bada, modalitate hauetako bat hautatu ahal izango da, gero aldatzeko aukerarik gabe:

- lantokitik ordubete alde egitea, bi zatitan banatzeko aukerarekin.
- lanaldi normala murriztea, kasu bakoitzean aplikatzekoa den akordioan edo hitzarmenean ezarritakoaren arabera.
- edoskitze-denboraren orde, ordaindutako baimena hartzea, dagokion denbora lanaldi osoetan metatuta. Modalitate hau nahitaezko baimenaldia amaitu aurretik eskatu beharko da, eta bakar-bakarrik hartu ahal izango da jaiotza, adopzio, zaintza edo harreragatiko baimena amaitzen denean, edo ama biologikoa ez den gurasoarena, edo haurra jaio denetik baimen horiek hartzen duten denbora igaro denean (18 aste oro har)

Baimen honen iraupena modu proportzionalan luzatuko da erditze, adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harrera anizkoitza denean.

VIII.- MUFACE EDO MUGEJU ERREGIMENETAKO LANGILEAK

Erregimen horietan sartzen diren langileei instrukzio honetan aurreikusitakoa aplikatuko zaie: alde batetik, Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko langileentzat nahitaezko zatia eta borondatezkoa hartzeko ezarritako baldintzei dagokienez; eta, bestetik, Gobernu Kontseiluaren Erabakiak onartutako hobekuntza-zatirako ezarritako baldintzei dagokienez.

IX.- KOLEKTIBO BAKOITZARI EGOKITZEA

Instrukzio hau orokorra da; horregatik, aplikatuko zaien kolektiboen errealitateak berdina izango ez direnez, kolektibo bakoitzari egokitzeko egin beharko diren aldaketa

guztiak Funtzio Publikoko Sailburuordetzara komunikatu beharko dira eta hark baimendu beharko ditu.

VI.- EFEKTU-DATA

Instrukzio honek 2019ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 23a.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA
Funtzio Publikoko Sailburuordetza

Sin: ANDRES ZEARRETA
DEPARTAMENTO DE GOBERNANTZA
PUBLICA Y AUTOGOBIERNO
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDETZA

I. ERANSKINA

AURREABISU-EREDUA

(herria), (data)

(Langilearen izena] jaunak/andreak

(Zuzendaritzaren izena) zuzendariari

Idazki honen bidez komunikatzen dut, arauak agindutako gutxienez 15 egun baliodun lehenagoko epearen barruan, (jaiotza, adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harreragatik; edo ama biologikoa ez den beste gurasoaren jaiotza, adopzio eta adopzio aurreko zaintza edo harreragatik) baimena hartu nahi dudala, nire (zehaztu), (urte)ko (hila)ren (egun)ean jaiotakoa, dela-eta. Zehazki, baimena zatika hartzea eskatzen dut aste hauetan: (Zehaztu, aste osoak hartu behar direla kontuan izanda)